



DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN JARDUERAK ETA KONTZEPTUAK

ESKOLA HITZARMENAK 2024-2025

1. DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN JARDUERAK

Kirol federazioek jarduera hauek antola ditzakete 2023-2024ko eskola programan, eskola kirolaren hitzarmenaren barruan:

JARDUERA MOTA	IZENA	IZENA EMANDA DAUDENAK	IZENA EMANDA EZ DAUDENAK
"Lehiaketa" jarduerak	Parte hartze ibilbidearen kirol bakarreko lehiaketa	x	*
	Errendimendu ibilbidearen kirol bakarreko lehiaketa	x	
	Lehia jaia (lehiaketa ez ofiziala)	x	x
Jolas jarduerak	Kirol bakarreko topaketak	x	*
	Jolas jaia	x	x
Hastapen ikastaroak	Hastapen ikastaroak		x
Teknifikazio proiektuak	Teknifikazio proiektuak	x	

1.1. "LEHIAKETA" JARDUERAK

1.1.1. PARTE HARTZE IBILBIDEAREN LEHIAKETA OFIZIALA - KIROL BAKARREKOA

PARTE HARTZE IBILBIDEAREN LEHIAKETA - KIROL BAKARREKOA	
KONTZEPTUA (ZER LAGUNTZEN DEN DIRUZ) Jarduera mota Modalitateak/diziplinak Antolatzailea Nori zuzendua Kategoriak Parte hartzeko modua Aldia Helburua	<ul style="list-style-type: none"> - Lehiaketa jarduera. - Kirol diziplina batekoa (edozein) edo modalitate bereko diziplina bat baino gehiagokoa. - Kirol federazioak antolatua, zuzenean edo kirol erakunde baten bidez. - Modalitatean/diziplinan izena eman duten eskola haurrentzat. - Benjaminak, kimuak, haurrak eta kadeteak. - Parte hartzea inskribatutako kirol erakundeen bidez gauzatzen da, modu irekian. - Eskola aldiko egun balioudunetan eta eskola orduetatik kanpo, urteko foru aginduan ezarritako ordu-tarteetan/egunetan. Ekaineko eta iraileko eskola programaren egunetan, udako egutegi federatua duten modalitateetako lehiaketak egiteko aukera ematen da. - Lehiaketan hastea.
BESTE EZAUGARRI BATZUK	<ul style="list-style-type: none"> - Lehiaketeta ofizialetan sailkapenak sortu behar dira (Arabako Txapelketak). - benjamin kategorian izan ezik, horiek borondatezkoak izango baitira. - Federazio batek diziplina anitzeko egutegi bat antolatu ahal izango du, modalitate bereko diziplinak konbinatzeko. - Lehiaketa ofizialetako batean, izena eman ahal izango dute eskola programan izena eman ez duten kirolarien inskripzioa federazioen bidez egingo da, jardueraren aurretik. AFaren formularioa erabili beharko da, baita dagokion federazioak erabili nahi duen beste edozein ere. - Modalitateak Multi B (edo Multi C) jardueran inskribatutako taldeak/kirolariak baditu, lehiaketetan parte hartu ahal izango dute. Gainerakoekin batera edo talde berezietan.



	<ul style="list-style-type: none"> - Lehiaketak egiten diren espazioetan, benjamin aurrekoentzako jarduera ez-lehiakorrek antolatu ahal izango dira, izaera ludikokoak (jokoak nagusiki, lehiaketa egokitua, taldekideen nahasketa, etab.). Federazioak jarduera horien proiektu espezifikoak aurkeztu beharko du. - Ezin da kobratu izena emateagatik/parte hartzeagatik. - Euskal federazioak edo lurraldeko beste federazio batek antolatutako lehiaketen kasuan, edo beste federazio batekin batera antolatutako kasuan, Arabako federazioak antolatutako jardunaldiak bakarrik lagunduko dira diruz (edo Araban egindakoak). Beste lurralde historiko batzuetan egindako jardunaldien kasuan, Arabako Foru Aldundiaren garraio zerbitzua erabili ahal izango da. - Arabako Lurralde Historikokoak ez diren taldeek/kirolariek parte hartzeko, lehenik eta behin, beren lurraldeko administrazio eskudunaren baimena beharko dute, eta, bigarrenik, Arabako Foru Aldundiaren baimena. - Lehiaketa berean ezin izango dute inola ere parte hartu eskola lizentzia duten kirolariek eta federazio lizentzia duten kirolariek. Hala badagokio, azpiegitura aprobetxatzeari begira, probak antolatu ahal izango dira egun/instalazio berean, baina, betiere, ordutegien arabera bereizita. Instalazio berean ere egin daitezke, baldin eta behar bezala mugatutako espazio bereizietan egiten badira.
ZER EZ DA (ETA EZ DA DIRUZ LAGUNTZEN)	<ul style="list-style-type: none"> - Kirol entitate bakarra lehiatzen den jarduerak (entitate bakarra duten diziplinak izan ezik). - Beste probintzia batzuetan egindako jardunaldiak, beste lurralde bateko federazioak edo euskal federazioak antolatutakoak.

1.1.2.ERRENDIMENDU IBILBIDEAREN LEHIAKETA OFIZIALA - KIROL BAKARREKOA

ERRENDIMENDU IBILBIDEAREN LEHIAKETA - KIROL BAKARREKOA	
<p>KONTZEPTUA (ZER LAGUNTZEN DEN DIRUZ)</p> <p>Jarduera mota Modalitateak/diziplinak Antolatzailea Nori zuzendua Kategoriak Parte hartzeko modua Aldia Helburua</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Lehiaketa jarduera (errendimendu hastapenekoak). Ofiziala edo ez-ofiziala izan daitezke. Ofiziala ez bada, egutegian adierazi beharko da. - Kirol diziplina batekoa (edozein). - Kirol federazioak antolatua, zuzenean edo kirol erakunde baten bidez. - Diziplinan izena eman duten eskola haurrentzat. - Kimuak (2. urtea), haurrak eta kadeteak. - Parte hartzea mugatua da, baldintzak betetzen dituzten inskribatutako kirol klub eta elkarteen bidez, eta AFAk eta dagokion federazioak gonbidapena egin ondoren. - Eskola aldiko egun balioudunetan eta eskola orduetatik kanpo, urteko foru aginduan ezarritako ordu-tarteetan/egunetan. Ekaineko eta iraileko eskola programaren egunetan, udako egutegi federatua duten modalitateetako lehiaketak egiteko aukera ematen da. - Errendimenduan hasteko helburuarekin.
BESTE EZAUGARRI BATZUK	<ul style="list-style-type: none"> - Lehiaketeta ofizialetan sailkapenak sortu behar dira (Arabako Txapelketak). - Bi ibilbideetan lehiaketak sortzeko adina parte hartzaile ez badago, bien arteko lotura ezarri ahal izango da faseen bidez. - Talde kiroletan, parte hartzen duten entitateek honako baldintza hauek bete behar dituzte: Arabako federaziokoak izatea, taldeak segidako kategorietan izatea, teknikarien kirol titulazioa egiaztatzea, kimuen mailan edo beheragokoetan erakartze jarduerarik ez egitea. - Banakako kiroletan, parte hartzeko baldintzak AFAREN eta dagokion federazioaren artean adostuko dira. - Ezin da kobratu izena emateagatik/parte hartzeagatik. - Kirol federazioaren taldeek ezin dute parte hartu. - Euskal federazioak edo lurraldeko beste federazio batek antolatutako lehiaketen kasuan, edo beste federazio batekin batera antolatutako kasuan, Arabako federazioak antolatutako jardunaldiak bakarrik lagunduko dira diruz (edo Araban egindakoak). Beste lurralde historiko batzuetan egindako jardunaldien kasuan, Arabako Foru Aldundiaren garraio zerbitzua erabili ahal izango da. - Lehiaketa berean ezin izango dute inola ere parte hartu eskola lizentzia duten kirolariek eta federazio lizentzia duten kirolariek. Hala badagokio, azpiegitura aprobetxatzeari begira, probak antolatu ahal izango dira egun/instalazio berean, baina, betiere, ordutegien arabera bereizita. Instalazio berean ere egin daitezke, baldin eta behar bezala mugatutako espazio bereizietan egiten badira.
ZER EZ DA (ETA EZ DA DIRUZ LAGUNTZEN)	<ul style="list-style-type: none"> - Beste probintzia batzuetan egindako lehiaketak, beste lurralde bateko federazioak edo euskal federazioak antolatutakoak.



1.1.3. LEHIA JAIA (LEHIAKETA EZ OFIZIALA)

LEHIA JAIA (LEHIAKETA EZ OFIZIALA)	
KONTZEPTUA (ZER LAGUNTZEN DEN DIRUZ) Jarduera mota Modalitateak/diziplinak Antolatzailea Nori zuzendua Kategoriak Parte hartzeko modua Aldia Helburua	<ul style="list-style-type: none">- Lehiaketa jarduera EZ ofiziala, lehiaketa ofizialaren formatua ez den beste batean.- Kirol diziplina batekoa (edozein) edo modalitate bereko diziplina bat baino gehiagokoa.- Kirol federazioak antolatua, zuzenean edo kirol erakunde baten bidez.- Modalitatean/diziplinan izena eman eta izena eman ez duten ikasleentzat.- Benjaminak, kimuak, haurrak eta kadeteak.- Parte hartzea norbanako gisa egiten da, ez entitate gisa. Izen-ematea federazioan egin beharko da, aurretik edo jardueraren egunean bertan. AFaren formularioa erabili beharko da, baita dagokion federazioak erabili nahi duen beste edozein ere.- Eskola programaren aldi osoan, eskola aldiko egun baldiodunetan eta ez-baldiodunetan, eskolako lehiaketa-jardunaldiarekin bat etorri gabe. Egun baldiodunen kasuan, urteko foru aginduan ezarritako ordu-tarteak/egunak; baldiodunak ez diren egunetan, edozein ordu-tartetan/egunean.- Jolasa eta ezagutza (lehen kontaktua).
BESTE EZAUGARRI BATZUK	<ul style="list-style-type: none">- Kirol federazioak parte hartzaileen eta teknikarien zerrenda aurkeztu beharko dio Arabako Foru Aldundiari hitzarmena justifikatzeko azken memorian.- Eskola haurrek nahi duten guztietan parte hartu ahal izango dute.- Oro har, jarduerak doakoak izan beharko dute edo euro bateko kostu sinbolikoa izan beharko dute bertaratze berme gisa, salbu eta jardueran aparteko gastu batzuk badaude, hala nola sarrerak erostea edo materiala alokatzea, kostu handiagoa justifikatzen dutenak (AFaren oniritzia izan beharko du). Inskripzioen % 10 gorde beharko da, gutxienez, kalteberatasun ekonomikoko egoeran dauden haurren parte hartzerako (kosturik gabekoa edo prezioaren % 75erainoko murrizketarekin). Baldintza hori egiaztatzeko, gizarte-laguntzak (GLL, DSBE, etab.) jaso izanaren ziurtagiria aurkeztu beharko da.

1.2. JOLAS JARDUERAK

1.2.1. TOPAKETAK – KIROL BAKARREKOAK

TOPAKETAK – KIROL BAKARREKOAK	
KONTZEPTUA (ZER LAGUNTZEN DEN DIRUZ) Jarduera mota Modalitateak/diziplinak Antolatzailea Nori zuzendua Kategoriak Parte hartzeko modua Aldia Helburua	<ul style="list-style-type: none">- Irakaskuntza jarduera (hastapena) edo jolas jarduera (lehiarik gabea).- Kirol diziplina batekoa (edozein) edo modalitate bereko diziplina bat baino gehiagokoa.- Kirol federazioak antolatua, zuzenean edo kirol erakunde baten bidez.- Modalitatean/diziplinan izena eman duten eskola haurrentzat.- Aurrebenjaminak, benjaminak, kimuak, haurrak eta kadeteak.- Parte hartzea inskribatutako kirol erakundeen bidez gauzatzen da, modu irekian.- Eskola aldiko egun baldiodunetan eta eskola orduetatik kanpo, 50/2021 Aginduan ezarritako ordu-tarteetan/egunetan.- Helburu nagusia jolasa da.
BESTE EZAUGARRI BATZUK	<ul style="list-style-type: none">- Jardueraren batean, izena eman ahal izango dute eskola kirolean izena emanda ez daudenek. Kasu horretan, inskripzioa federazioen bidez egingo da, jardueraren aurretik eta Arabako Foru Aldundiari jakinarazita.- Modalitateak Multi B (edo Multi C) jardueran inskribatutako taldeak/kirolariak baditu, jardueretan parte hartu ahal izango dute- Federazio batek diziplina anitzeko egutegi bat antolatu ahal izango du, modalitate bereko diziplinak konbinatzeko.- Ezin da kobratu izena emateagatik/parte hartzeagatik.
ZER EZ DA (ETA EZ DA DIRUZ LAGUNTZEN)	<ul style="list-style-type: none">- Kirol entitate bakar batek parte hartzen duen jarduerak (entitate bakarra duten diziplinak izan ezik).- Eskola kiroleko kanpainan izena eman duten federazioaren beraren hastapen taldeak (kirol bakarreko jarduera).



1.2.2. JOLAS JAIA

JOLAS JAIA	
KONTZEPTUA (ZER LAGUNTZEN DEN DIRUZ) Jarduera mota Modalitateak/diziplinak Antolatzailea Nori zuzendua Kategoriak Parte hartzeko modua Aldia Helburua	<ul style="list-style-type: none">- Jolas jarduerak.- Kirol diziplina batekoa (edozein) edo modalitate bereko diziplina bat baino gehiagokoa.- Kirol federazioak antolatua, zuzenean edo kirol erakunde baten bidez.- Modalitatean/diziplinan izena eman eta izena eman ez duten ikasleentzat.- Aurrebenjaminak, benjaminak, kimuak, haurrak eta kadeteak.- Parte hartzea norbanako gisa egiten da. Izen-ematea federazioan egin beharko da, aurretik edo jardueraren egunean bertan. AFaren formularioa erabili beharko da, baita dagokion federazioak erabili nahi duen beste edozein ere.- Eskola programaren aldi osoan, eskola aldiko egun baliodunetan eta ez-baliodunetan eta eskola orduetatik kanpo.- Jolasa eta ezagutza (lehen kontaktua).
BESTE EZAUGARRI BATZUK	<ul style="list-style-type: none">- Kirol federazioak parte hartzaileen eta teknikarien zerranda aurkeztu beharko dio Arabako Foru Aldundiari hitzarmena justifikatzeko azken memorian.- Eskola haurrek nahi duten guztietan parte hartu ahal izango dute.- Oro har, jarduerak doakoak izan beharko dute edo euro bateko kostu sinbolikoa izan beharko dute bertaratze berme gisa, salbu eta jardueran aparteko gastu batzuk badaude, hala nola sarrerak erostea edo materiala alokatzea, kostu handiagoa justifikatzen dutenak (AFaren oniritzia izan beharko du). Inskripzioen % 10 gorde beharko da, gutxienez, kalteberatasun ekonomikoko egoeran dauden haurren parte hartzerako (kosturik gabekoa edo prezioaren % 75erainoko murrizketarekin). Baldintza hori egiaztatzeko, gizarte-laguntzak (GLL, DSBE, etab.) jaso izanaren ziurtagiria aurkeztu beharko da.

1.3. HASTAPEN IKASTAROAK

HASTAPEN IKASTAROAK	
KONTZEPTUA (ZER LAGUNTZEN DEN DIRUZ) Jarduera mota Modalitateak/diziplinak Antolatzailea Nori zuzendua Kategoriak Parte hartzeko modua Aldia Helburua	<ul style="list-style-type: none">- Irakaskuntza jarduera (hastapena).- Hedatzeko eta zabaltzeko beharra duen kirol modalitate edo diziplina batena. 200 eskola lizentzia baino gehiagoko modalitateek ezin izango dute ikastarorik egin Gasteizen, ezta genero eta kategoria horretako eskola jarduera eskaintzen duen kirol entitatearen bat duten beste udalerrri/kuadrilletan ere.- Kirol federazioak antolatua, zuzenean edo kirol erakunde baten bidez.- Jardueran edo modalitate/diziplinan izena eman EZ duten ikasleentzat- Benjaminak, kimuak, haurrak eta kadeteak.- Parte hartzea norbanako gisa egiten da Izen-ematea federazioan egin beharko da, jarduera aurretik. AFaren formularioa erabili beharko da, baita dagokion federazioak erabili nahi duen beste edozein ere.- Eskola programaren aldi osoan, eskola aldiko egun baliodunetan eta ez-baliodunetan eta eskola orduetatik kanpo.- Ezagutza (lehen kontaktua).



BESTE EZAUGARRI BATZUK	<ul style="list-style-type: none"> - Ikastaro bakoitzeko gehienez 4 orduko dirulaguntza emango da. Hala erabakitzen duten federazioek ordu gehiago eskaini ahal izango dituzte ikastaro bakoitzeko, eta, hala badagokio, kostu gehigarria beren gain hartuko dute. - Ikasleek kirol diziplina bakoitzeko behin bakarrik eman ahal izango dute izena. - Kirol federazioak parte hartzaileen eta teknikarien zerrenda aurkeztu beharko dio Arabako Foru Aldundiari hitzarmena justifikatzeko azken memorian. - Jarduerak doakoak izan daitezke edo orduko euro bateko kostu sinbolikoa izan dezakete, salbu eta jardueran aparteko gastu batzuk badaude, hala nola sarrerak erostea edo materiala alokatzea, jardueraren kostu handiagoa justifikatzen dutenak. Inskripzioen % 10 gorde beharko da, gutxienez, kalteberatasun ekonomikoko egoeran dauden haurren parte hartzerako (kosturik gabekoa edo prezioaren % 75erainoko murrizketarekin). Baldintza hori egiaztatzeko, gizarte-laguntzak (GLL, DSBE, etab.) jaso izanaren ziurtagiria aurkeztu beharko da.
-------------------------------	--

1.4. TEKNIFIKAZIO PROIEKTUAK

TEKNIFIKAZIO PROIEKTUAK	
KONTZEPTUA (ZER LAGUNTZEN DEN DIRUZ) <i>Jarduera mota</i> <i>Modalitateak/diziplinak</i> <i>Antolatzailea</i> <i>Nori zuzendua</i> <i>Kategoriak</i> <i>Parte hartzeko modua</i> <i>Aldia</i> <i>Helburua</i>	<ul style="list-style-type: none"> - Irakaskuntza jarduera (teknifikazioa) eta, hala badagokio, detekzio eta lehiaketa jarduera. - Edozein kirol modalitate edo diziplina. - Kirol federazioak zuzenean antolatua. - Eskola adinean dauden eta modalitatearen/diziplinaren proiektzio handiena duten kirolarientzat, detekzio prozeduren bidez hautatuak. Federazio lizentzia duten kirolariek jardueretan parte hartu ahal izango dute, betiere taldearen % 25 baino gehiago ez badira eta federazioen arloko teknifikazio proiektuetan parte hartzen ez badute. - Kimuen 2. urtetik kadetera artekoak (1. urteko kimuak detekzio jardueren kasuan). - Parte hartzea kirol federazioen bidez garatzen da. - Eskola programaren aldiko egun baliodunetan egingo da, eskola kiroleko gainerako jardueretan eragin gabe. Selekzioen lehiaketen kasuan, baliodunak ez diren egunetan ere bai. - Errendimenduko kirola egiteko gaitasuna duten eskola haurren hobekuntza tekniko, taktiko eta fisikoa lortzea.
BESTE EZAUGARRI BATZUK	<ul style="list-style-type: none"> - Erakunde laguntzaileek ezin izango dute eskola-teknifikazioko proiekturik garatu diziplina/modalitatean proiektzio handiena duten kirolari guztiak edo gehienak eremu federatuko jardueretan soilik lehiatzen diren kategorietan. Teknikazio-proiektu horiek, hala badagokio, eremu federatuan garatu beharko dira. - Proiektuek, hala badagokio, aurretiko detekzio-jarduerak eta lehiaketa-jarduerak (lehiaketa mugatuak, Arabako selekzioak) aurkeztu behar dituzte. - Diruz lagundu daitezkeen detekzio jardueren kopurua ezin izango da hiru (3) baino handiagoa izan kategorian bakoitzeko - Taldeko gehieneko kirolari kopurua egotea. Kirol diziplina, genero eta kategoriako parte hartzaile guztien % 25. Diziplina minoritarioetan, ehuneko horrek ez badu uzten behar adina parte hartzaile egiten, federazioak beste % batzuk proposatu ahal izango ditu generoaren eta kategoriaren arabera, baina parte hartzaileen guztien baturak ezin izango du gainditu diziplina horretako teknifikazio adinetan izena emandako parte hartzaile guztien % 50. Ehuneko horietan ez dira sartzen jarduera behar bezala garatzeko beharrezkoak diren kirolariak (laguntza kirolariak). - Kirol federazioak parte hartzaileen eta teknikarien zerrenda aurkeztu beharko dio Arabako Foru Aldundiari hitzarmena justifikatzeko azken memorian. Teknikazioan zuzenean parte hartu ez arren, teknifikazioa behar bezala garatzeko beharrezkoak diren kirolariak ere zerrendan sartu beharko dira. - Ezin da kobratu izena emateagatik/parte hartzeagatik - Proiektua onartzeko, AFAREN balorazio teknikoa behar da. - Lehiaketa mugatuak (selekzioak), euskal federazioak antolatzen dituen heinean, ez dira diruz laguntzen. AFAREN garraio zerbitzua erabili ahal izango da.
ZER EZ DA (ETA EZ DA DIRUZ LAGUNTZEN)	<ul style="list-style-type: none"> - Kirol klub edo elkarte baten bidez antolatutako jarduerak.



2. DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN BESTE KONTZEPTU BATZUK

BESTE KONTZEPTU BATZUK	
MATERIALA	<ul style="list-style-type: none">- Eskola jarduerak antolatzeko beharrezkoa den kirol materiala, bereziki material suntsikorra.- Horren beharra eta aurrekontua justifikatu beharko dira.- Kirol federazioaren izenean egindako faktura bidez egiaztatu beharko da.
INSTALAZIOA	<ul style="list-style-type: none">- Kosturik gabeko instalazio publiko edo pribatuak erabiltzea ezinezkoa den kasuetan bakarrik.- Horren beharra eta aurrekontu xehatua aurkeztu beharko dira aldez aurretik.- Kirol federazioaren izenean egindako faktura bidez egiaztatu beharko da.
ARBITRAJE IKASTAROA	<ul style="list-style-type: none">- Eskola kiroleko arbitroak/epaileak prestatzeko arbitraje ikastaroak (ez ikastaro federatuak).- Horren beharra eta aurrekontu xehatua aurkeztu beharko dira aldez aurretik.- Egin izana egiaztatu beharko da.
KIROLTASUNAREN ALDEKO EDO INDARKERIAREN AURKAKO EKINTZAK	<ul style="list-style-type: none">- Kiroltasunaren aldeko edo indarkeriaren aurkako ekintzak, gastu ez-arrunta behar dutenak.- Dokumentu/proiektu bat aurkeztu beharko du, haren beharra eta aurrekontua justifikatzeko.- Egin izana egiaztatu beharko da eta, hala badagokio, kirol-federazioaren izenean egindako fakturak eta gastuaren egiaztagiria.



2024-2025ko EGUTEGIA/DOKUMENTAZIOA AURKEZTEA

FEDERAZIOAK	
EKAINAK 15	<ul style="list-style-type: none">- Jardueren proposamena, I. eranskinaren arabera (excel).- Jardueren proposamen tekniko (jarduera-mota bakoitzaren deskribapena), II. eranskineko ereduaren arabera. Bakarrrik aurkeztu beharko da baldin eta 2023-2024 ikasturteko jarduerekin alderatuta jarduera berriak edo moldaketak dauden (aldaketak, horiz azpimarratuta).- 24-25 jardueren eskaintza. Proposamenean aldaketak egon edo ez (aldaketak, horiz azpimarratuta).- Federazioaren diziplinei buruzko araudi espezifikoak 2024-2025 (aldaketak, horiz azpimarratuta).
ABUZTUAK 10	<ul style="list-style-type: none">- Irailean egingo diren jarduera irekiak, III. eranskineko ereduaren arabera.
IRAILAK 10	<ul style="list-style-type: none">- Urrian egingo diren jarduera irekiak, III. eranskineko ereduaren arabera.
IRAILAK 27	<ul style="list-style-type: none">- 2023-2024 eskola programako modalitatearen jardueren egutegia, 3. eranskineko ereduaren arabera.- Hala badagokio, lehiaketa oinarriak (geroago entregatu ahal izango dira, baina betiere lehiaketa hasi baino astebete lehenago gutxienez).
AZAROAK 15	
ABENDUAREN 26A ETA HURRENGO URTEKO EKAINAREN 30A	<ul style="list-style-type: none">- Justifikazio memoriak, 4. eranskineko ereduaren arabera: garatutako jarduerak, hala badagokio, CUDE aplikazioan ez dauden parte hartzaileen zerrenda, sailkapenak/emaizak.